



Zenbait oinarrizko kontzeptu ekonomiko

Ekonomia eta historia ekonomikoa

- “**Ekonomia** (antzinako grezieratik: oikos, «etxe» + nomos, «lege», hau da, «etxeko legea») gizabanakoaren zein gizartearen beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, trukaketa, banakuntza eta kontsumo prozesuak eta prozesu hauek eragiten dituzten gizarte harremanak aztertzen dituen gizarte zientzia da”.
(Wikipedia-tik)

Ekonomia eta historia ekonomikoa

- Laburbilduz: ekonomia ondasunen eta zerbitzuen produkzioaz, banaketaz eta kontsumoaz aritzen den gizarte zientzia/jakintza arloa da
- Historia ekonomikoa iraganeko ondasunen eta zerbitzuen produkzioaz, banaketaz eta kontsumoaz aritzen da, alor horretan (eta beste batzuetan) gertatu den bilakaera ulertzeko helburuarekin

Produkzioa eta aberastasuna

- Ondasuna
 - gizakiaren premia bat (nahi bat) asetzen duen gauza materiala, lan prozesu baten ondorio izan ohi dena
- Zerbitzua
 - gizakiaren premia bat (nahi bat) asetzen duen ekintza ez-materiala, lan prozesu baten ondorio izan ohi dena

Produkzioa eta aberastasuna

- **Produkzioa**
 - ondasun eta zerbitzu baten sorkuntza (premia bat asetzeko)
 - horretarako, produkzio faktore batzuen arteko konbinaketa:
 - lurra
 - lana
 - kapitala

Produkzioa eta aberastasuna

- Produkzioa
- Erreprodukzio ekonomikoa
 - lana (lan indarra) eta bere bizitza baldintzak biderkatzeko eta iraunarazteko ekintzak biltzen dituzten prozesuak (“pertsonekko produkzioa”)
 - funtsean, produkzio ekintza bat, baina merkatutik kanpo gertatu izan ohi denez (etxean), “ekonomiaren” eremutik kanpo
 - ekonomia feministaren kritika

Produkzioa eta aberastasuna

- Produkzioa
- Erreprodukzio ekonomikoa
- Kapitalismoak bi esfera horien banaketa eragin edo areagotu du, lehenengoa balioztatuz eta bigarrena emakumeen esku utziz (nagusiki)

Produkzioa eta aberastasuna

- Lurra
 - edo natura baliabideak: naturatik zuzenean ateratzen ditugun produkzioko gaiak
 - (ekonomialari arruntek “emantzat” jotzen dute, eta ekonomiaren interesetik kanpo utzi, salbu eta produkzio prozesuan sartzen denean. Ekonomia ekologikoak horixe kritikatzeko du, besteak beste)

Produkzioa eta aberastasuna

- Lana
 - gizakiak produkzio prozesuan sartutako ahalegina; kapitala sortu eta «lurra» hobetu dezake (definizio klasikoaren arabera: badakigu kaltetu dezakeela ere, dena den)

Produkzioa eta aberastasuna

- Kapitala
 - gizakiak ekoiztutako produkziarako bitarteko oro (tresneria, makineria, eraikinak...)
 - kapital finkoa: iraunkorra, denbora baten buruan kontsumitzen dena
 - kapital zirkulatzalea: produkzio prozesuan bertan kontsumitu egiten dena (lehengaiak, soldatak, energia...)

Produkzioa eta aberastasuna

- Produkzio prozesuaren funtsezko helburuak gizartearen iraupena beharko luke, hots, maila berean iraunaraztea
 - soilik maila horretara iristen bada, soberakinik gabeko ekonomia (biziraupenekoa)
 - maila hori gainditzen badu, soberakina produzitzen duen ekonomia

Produkzioa eta aberastasuna

- Soberakina (gaineratikoa, «excedente»)
 - produkzio prozesuan erabilitako faktoreak ordezkatzeko eta ekoizleen bizi-maila mantentzeko gutxienekoa gainditzen duen produkzioaren atala
 - arazo sozio-ekonomiko garrantzitsua: nork produzitzen duen soberakina, eta nork kontrolatzen edo bereganatzen duen

Produkzioa eta aberastasuna

- Banaketa
 - produkzio prozesuaren emaitza diren ondasun edo zerbitzuen esku-aldaketa
 - geografikoa
 - soziala (soberakinaren kontzeptura itzularazten gaituena)

Produkzioa eta aberastasuna

- Produktibitatea
 - produkzio baten eta produkzio horren faktore baten edo gehiagoren arteko erlazioa (kuantitatiboa)
 - lanaren produktibitatea
 - kapitalaren produktibitatea
 - luraren produktibitatea

Produkzioa eta aberastasuna

- Produktibitatea
 - «etekin beherakorren legea» (D. Ricardo):
produkzio faktore bat haziz gero, modu gradual batean, besteak konstante mantentzen diren bitartean, une batetik aurrera produkzioaren hazkundera txikiagoa bihurtzen joango da

Produkzioa eta aberastasuna

- Aberastasuna
 - ondasunen eta zerbitzuen ugaritasuna
 - *stock* neurgailua, ez dena konfunditu behar *fluxu* neurgailuekin (BPG eta halakoak)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Hazkundera
 - halakorik gertatzen da gizarte baten aberastasunean (edo bere fluxuak neurtzen dituzten adierazleetan) igoera bat sumatzen denean
 - ekonomia tradizionaletan, oso mantsoa epe luzean, eta larriki apurtua, maiz
 - ohikoa eta jarraitua ekonomia industrialetan
 - (baina ez gorabeherarik gabekoa)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Krisia
 - hazkunderako joera orokorra apurtzen den epealdia
- Atzeraldia
 - epe laburreko BPGaren erorketa
- Beheraldia
 - epe luzeko BPGaren erorketa sakona

Hazkundera, garapena, eta abar

- Hala ere, historikoki “krisi” hitza zentzu zabalago batean erabiltzen da
 - “XIV. mendeko krisia”, “XVII. mendeko krisia”, “Gerrarteko krisia”...
 - epe luzeko arazo ekonomiko eta sozialen metaketa garaia
 - krisiak, ezberdinak kapitalismoan eta nekazaritzan oinarritutako ekonomia aurrekapitalistetan

Hazkundera, garapena, eta abar

- Hala ere, historikoki “krisi” hitza zentzu zabalago batean erabiltzen da
 - krisiak, ezberdinak kapitalismoan eta nekazaritzan oinarritutako ekonomia aurrekapitalistetan
 - oro har, krisi tradizionalak azpiprodukziozkoak ziren, eta beheraldi demografiko nabarmenekin
 - krisi kapitalistak, ordea, gainprodukziozkoak

Hazkundera, garapena, eta abar

- Garapena
 - ekonomia jakin baten hobekuntza kualitatibo eta egonkorra (esanahi «arrunta»)
 - ekonomiaren egituraren aldaketa sakon bat ematen denean (gehienetan hazkunderaren ondorioz, baina ez halaberrez)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Aurrerapena edo progresoa
 - ekonomia batean bizi-mailen hobekuntza orokor bat gauzatzen denean (gehienetan desberdintasun ekonomikoen murrizketa batekin batera)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Barne Produktu Gordina (eta kontabilitate nazionaleko gainontzeko neurgailuak)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Barne Produktu Gordina (etab.)
 - lurralde bateko aberastasun fluxuaren neurria, azken mailako ondasun eta zerbitzu berri guztien balioaren batuketa, epealdi jakin batean zehar
 - dirutan neurtzen da, eta, konparaketak ahalbidetzeko, biztanleriarekin erkatzen da (*per capita* egiten da, alegia)

Hazkundera, garapena, eta abar

- Barne Produktu Gordina (mugak)
 - datu zehatzak XX. mendearen erdialdetik
 - merkatutik igarotzen dena edo igaro zitekeena neurtzen du soilik
 - ez du aberastasunaren banaketari buruz deus esaten, eta gutxi bizitza-kalitateaz
 - naturari egindako kalteak gutxiagotzeko joera
 - emakumearen papera ekonomian gutxiesteko joera

Hazkundera, garapena, eta abar

- Giza Garapenaren Indizea, garapena eta aurrerapena neurtzeko beste bide bat
 - biztanleko BPGa (eros-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtua)
 - bizitza-itzaropena
 - alfabetatze eta hezkuntza mailak.

Hazkundera, garapena, eta abar

- Barne Zoriontasun Gordina bezalako neurgailuak
 - galdetegien bitartez (ongizate psikologikoa, denboraren erabilera, erkidegoaren indarra, kultura, osasuna, hezkuntza, biodibertsitatea, bizitza-maila, gobernua)

Hazkundera, garapena, eta abar

- **Aztarna ekologikoa**
 - Gizaki bakoitzak kontsumitzen duen energia, elikadura, baliabideak, hondakinak... ekoizteko eta xurgatzeko beharrezkoa litzatekeen lur-azaleraren kalkulua
 - Maximoa pertsona bakoitzeko (6.000 milioiko biztanleria baterako) 1,8 hektareatan ezarri da
 - Gutxi gora-behera Txinaren aztarna ekologikoa egun
 - 2005ean IHOBek EAerako egindako kalkularen arabera: 4,66 hektarea global per capita.

Hazkundera, garapena, eta abar

- BPGaren eskaintzaren aldetiko klasifikazioa
 - Lehen sektorea edo arloa: nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, basogintza, meatzaritza
 - Nekazaritza tradizionala edo organikoa
 - “Nekazaritza Iraultza” (XVII.-XIX. mendeak)
 - “Iraultza Berdea” (XX. mendearen 2. erdialdea)
 - Nekazaritza industrialak
 - Produktibitate maila handiagoa
 - Balantze energetiko desorekatua

Hazkundera, garapena, eta abar

- BPGaren eskaintzaren aldetiko klasifikazioa
 - Bigarren sektorea: industria, eraikuntza
 - industria arina / kontsumo ondasunen industria
 - industria astuna / kapital ondasunen industria
 - Artisautza edo eskulangintza
 - “Industrious Revolution” (XVII.-XVIII. mendeak)
 - Industri Iraultza: (XVIII. mendearen erdialdetik) 2. sektorea mekanizatu eta nagusi izatera igarotzen den prozesua

Hazkundera, garapena, eta abar

- BPGaren eskaintzaren aldetiko klasifikazioa
 - Hirugarren sektorea: zerbitzuak
 - Laugarren sektorea: I+Gekin lotutako zerbitzuak
 - Tertziarizazioa: ekonomia industrial helduetan 3. sektorea gailentzeko ematen den joera
- [Asmakuntza / Berrikuntza]
 - asmakuntza: isolatua, maiz indibiduala...
 - berrikuntza: asmakuntza hedatu, homogeneizatu eta egitura ekonomikoetan txertatzen denean

Demografia

- Populazioaren hazkundera
 - noiz eta zergatik?
 - hazkunde naturala: bertako biztanleriako jaioen eta hildakoen arteko harremana
 - hazkunde osoa: hazkunde (positibo edo negatibo) naturalari emigrazioaren + immigrazioaren eragina gehitzen zaionean.

Demografia

- Neurgailu nagusiak
 - heriotza-tasa: une bateko heriotzak 1000 biztanleko
 - jaiotza-tasa: une bateko jaiotzak 1000 biztanleko
 - joritasun-tasa: jaiotzak 1000 emakume joriko
 - bizi itxaropena: eremu jakin bateko belaunaldi baten batz besteko bizitza, jaiotzetik heriotzara
 - migrazio saldoa: emigranteak - immigranteak

Diru kontuak

- Dirua: aktibo likidoa (baliabide ekonomikoa), forma ezberdinak har ditzakeena, eta balorazio-bitarteko eta ordainketa-bitarteko bezala erabili ohi dena
 - kontu-unitatea, ondasunak eta zerbitzuak baloratzeko
 - bitartekaritza funtzioa
 - erreserba funtzioa

Diru kontuak

- Dirua:
 - Estatuak bere kontrola edota monopolioa bere gain hartzeko joera izan du
 - desmaterializazio prozesu bat bizi izan du :
 - gai ezberdinak («aberastasuna» > abereak)
 - metal preziatuak > txanponak
 - bileteak, txekeak
 - gordailuak, transferentzia elektronikoak, «plastikozko dirua»... > kontabilitate datu hutsak
 - kriptodirua (Bitcoin, etab.)

Diru kontuak

- **Inflazioa: prezioek, batuz beste, gora egiten dutenean epealdi jakin batean**

Diru kontuak

- **Inflazioa:** prezioek, batzaz beste, gora egiten dutenean epealdi jakin batean
 - hiperinflazioa: prezioen igoera kontrolarik at, orekarako joerarik gabe (%50 hilean, %100 hiru urtean...)
- **Deflazioa:** prezioek, batzaz beste, behera egiten dutenean epealdi jakin batean

Diru kontuak

- Teoria monetarista: diru kopurua eta bere zirkulazioaren abiadak igo egiten badira (ekonomiaren beste elementuetan aldaketarik egon ezean), inflazioa sortzen da
 - diru kopurua jaitsi egingo balitz, jakina, orduan deflazioa genuke...

Diru kontuak

- Eskaintzaren eta eskaeraren legea (edo oreka)
 - salgai baten prezioa bere eskaintza eta eskaeraren arteko oreka puntuak markatzen duela
 - zenbat eta eskaera txikiagoa edo eskaintza handiagoa, orduan eta prezio txikiagoa
 - edonola ere, baldintza «perfektuetan», orekatzera jotzen duten indarrak...

Diru kontuak

- Diru-sistema: herrialde ezberdinetako txanponen arteko harremana definitzen duen arau multzoa
 - hasieran, metal preziatuen balioen arabera
 - gero, metal baten edo batzuen gaineko akordioen arabera (urre patroia adb.)
 - ondoren, dibisa baten inguruko akordioaren arabera (dolarra)
 - egun, dibisen arteko harreman aldakorrak

Diru kontuak

- Diru-sistema: herrialde ezberdinetako txanponen arteko harremana definitzen duen arau multzoa
 - diru-sistemak, beraz, paritate finkoetan oinarrituta egon daitezke
 - edo paritate aldakorretan

Diru kontuak

- Bankua

Diru kontuak

- Bankua: finantza erakundea, dirua gordetzen duena eta kreditua ematen duena, eta dirua «sartzeko» ahalmena duena
 - bankuaren negozioa gordailuengatik ordaintzen duen eta maileguengatik kobratzen duen prezio-diferentzian datza, interes-tasaren desberdintasunean alegia

Diru kontuak

- Bankua: finantza erakundea, dirua gordetzen duena eta kreditua ematen duena, eta dirua «sartzeko» ahalmena duena
 - izan ere, horrela «sartzeko» du bankuan dirua: gordailuen gaineko maileguak etengabe eginez, eta diru horren frakzio bat baino ez gordetzen bankuan...

Diru kontuak

- Banku motak (eragiketa moten arabera):
 - merkataritza-bankuak: epe laburreko maileguak eta eragiketak, gordailuak...
 - industria-bankuak: epe luzeko finantzazioa
 - banku mistoak: funtzio biak konbinatu
 - (inbertsio-bankuak: tituluen inguruko operazioetan espezializatzen direnak)

Diru kontuak

- Banku motak (jabegoaren edo kontrolaren arabera):
 - banka pribatua
 - banka publikoa
 - estatuaren kontrolarekin (aurrezki kutxak, adb)
 - banka ofiziala edo estatala (estatuak sortua edo nazionalizatua)
 - banku zentrala: finantza sistemaren gailurra eta bermea, bankuen bankua

Diru kontuak

- Interes tasa: diruaren prezioa, edo mailegatzen den diruaren korritua
 - Bataz besteko interes tasa
 - Diruaren eskariak eta eskaintzak baldintzatzen du, eta diru-agintzaritzak ezarri ohi du (Europako Bankuak, adb.)
 - Inflazioa moderatzeko edo bizkortzeko balio
 - Inbertsiorako joera baldintzatzen du

Nazioarteko trukeak

- Esportazioak
- Inportazioak
- (Muga-sariak, muga-zergak, edo arantzelak)
- Merkataritza balantza: $\text{esportazioak} - \text{inportazioak}$
- Ondasun eta zerbitzuen balantza: $\text{merkataritza balantza} + \text{zerbitzuen esportazioak} - \text{inportazioak}$

Nazioarteko trukeak

- Merkataritza balantza: esportazioak - inportazioak
- Ondasun eta zerbitzuen balantza: merkataritza balantza + zerbitzuen esportazioak - inportazioak
- Kontu korrante bitarteko balantza: ondasun eta zerbitzuen balantza + transferentzien inportazioak - esportazioak + errenten inportazioak - esportazioak

Nazioarteko trukeak

- Kontu korrante bitarteko balantza: ondasun eta zerbitzuen balantza + transferentzien inportazioak - esportazioak + errenten inportazioak - esportazioak
- Pagamendu balantza: Kontu korrante bitarteko balantza + inbertsioen eta maileguen inportazioa - esportazioa

Enpresa motak

- Enpresa pertsonala/familiakoa
- Sozietate kolektiboa
 - Bi sozio edo gehiago, erantzukizun mugagabea
- Sozietate komanditarioa
 - Sozio kolektiboak / sozio komanditarioak, erantzukizun mugatuarekin

Enpresa motak

- **Sozietate anonimoa**
 - Kapitala akziotan zatituta, erantzukizun mugatua; jabegoa / kudeaketa, banatuta
- **Sozietate mugatua**
 - Kapitala partizipazioetan banatuta, erantzukizun mugatua
- **Kooperatiba**
 - Kapitala langileen artean banatuta

Enpresa motak

- (Enpresa publikoak)
 - Estatua kapital osoaren edo parte baten jabe
- Enpresa mota gehien jatorrizko formak, Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren artean
- XIX. mendean familiarrak eta kolektibokomanditarioak nagusi
- XX.etik aurrera, anonimoak

Enpresa motak

- (Enpresa publikoak)
 - Estatua kapital osoaren edo parte baten jabe
- Enpresa mota gehien jatorrizko formak, Erdi Aroaren eta Aro Modernoaren artean
- XIX. mendean familiarrak eta kolektibokomanditarioak nagusi
- XX.etik aurrera, anonimoak
 - *jabetzako kapitalismoa / gerentziazko kapitalismoa*

Enpresa motak

- Eskala-ekonomiak: eskala handian produzitzeagatik aurrezkiak lortzen direnean > masa-produziorako bidea
- Hedadura-ekonomiak: ondasun edo zerbitzu bat baino gehiago elkarrekin produzituz gero lortzen diren aurrezkiak > enpresen konglomeratuak

Enpresa motak

- Monopolioa: enpresa bakar batek salgai baten eskaintza osoa menderatzen duenean
- Oligopolioa: enpresa gutxi batzuek salgai baten eskaintza osoa edo gehiena menderatzen dutenean
- Monopsonioa: enpresa bakar batek salgai baten eskaera osoa menderatzen duenean

Estatua eta ekonomia

- Ogasuna
 - gastua
 - batez ere militarra Aro Garaikidera arte
 - gero eta gehiago hazkunde ekonomikorako tresna gisa
 - fiskoa: zergak
 - zuzeneko zergak: aberastasunaren, jabegoaren eta errentaren gainekoak
 - zeharkako zergak: elkartrukeen eta kontsumoaren gainekoak
 - (soilik kapitalismoarekin estatuaren eskumen...)

Estatua eta ekonomia

- Esku hartzea ekonomian
 - Gastuaren eta politika fiskalaren bitartez
 - Legeen eta arauen bitartez
 - Gerraren eta konkistaren bitartez
 - *Laissez faire* delakoa
 - Plangintzaren bitartez
 - Plangintza zentralizatua (estatu merkatuaren orde)
 - Plangintza indikatiboa (kapitalismo “antolatua”, *ekonomia mistoa*)

Sistema ekonomikoak

- Hiru sistema ekonomiko nagusi aztertuko ditugu:
 - Feudalismo europarra
 - Feudalismo klasikoa edo Erdi Arokoa
 - Feudalismo garatua
 - Kapitalismoa
 - Merkataritza kapitalismoa (Feudalismo garatuan)

Sistema ekonomikoak

- Hiru sistema ekonomiko nagusi aztertuko ditugu:
 - Kapitalismoa
 - Merkataritza kapitalismoa (Feudalismo garatuan)
 - Konpetentziazko kapitalismoa: 1850-1890
 - Kapitalismo monopolistikoa: 1890-1940
 - Kapitalismo *keynestarra/fordista*: 1940-1985
 - Kapitalismo *neoliberal*a: 1985-gaur egun
 - Sozialismoa: 1917-1989